


BAPOREA



BILDUMA

Zopa-ontzia eta burruntzalia

Michael Ende

Irudiak: Pablo Echevarría

Itzulpena: Manu López Gaseni

ikasmina

Baziren behin bi erresuma: bata mendia handi baten ezker aldean zegoen; bestea, berriz, eskuinaldean.

Hori zela eta, erregeetako bati ezker erregea deitzen zioten, eta besteari, berriz, eskuin erregea. Inork ez dezala pentsa izen horien atzean bestelako zentzurik zegoenik; halaxe deitzen ziren, besterik gabe, eta berdin-berdin gerta zitekeen batak bestearen izena izatea.

Oso zaila zen bi erresumak banatzen zituen mendi handia eskalatzea; horregatik, inor ez zen halakorik egiten saiatu. Hori zela eta, elkarren berririk ez zuten, baina horrek ez zien kezka handirik eragiten. Erregeentzat, aldiz, lehenago edo geroago abantaila izaten da hori.


Eskuin erregeak Patxin zuen izena, eta ezker erregeak, berriz, Txapin. Ohi denez, haietako bakoitzak bere erregina zuen, gobernatzen laguntzen ziona. Patxin erregearen emaztea Patxine zen, eta Txapin erregearena, berriz, Txapine.

Bi erresumak oso txikiak zirenez, ez zegoen zer gobernatu handirik. Horregatik, udan, Patxin erregeak

Patxine erreginarekin jauregiko lorategian minigolfean jokatzeko ematen zuen denbora gehiena. Eta negua, berriz, tronu-aretoan musean jokatzeko pasatzeko zuten.

Txapin erregeak, bestalde, udan badmintonean jokatzeko zuen lorategian Txapine erreginarekin; eta neguan, berriz, monopoly-an tronu-aretoan. Horixe zen desberdintasun bakarra.

Halabeharrez, bi erreginak aldi berean erditu ziren ume batez. Txapine erreginak printze bat izan zuen, eta Patxinek, berriz, printzesa bat. Printzeari Larrufin jarri zioten ponte-izena, eta printzesari, berriz, Praline.







Bi errege-etxeek bataiorako gonbidapenak igorri zizkieten beren senitartekoei. Jakina da errege-erreginek senide asko eta oso sakabanatuak izan ohi dituztela. Horregatik, beste ipuin askotan gertatutakoa gertatu zen: ezkerreko errege-etxeari zein eskuinekoari ahaztu egin zitzaiera hamaikagarren mailako umore txarreko heren-lehengusina bat gonbidatzea, bi familiekin ahaidetuta zegoena.

Bihurne Ipurterre zuen izena, urru-neko herri batean bizi zen, gezurrezko izenez, eta arkakuso-hezlea zuen lan-bide aitortua. Isilpean, berriz, maitagarri bat zen; maitagarri gaiztoa, izan ere.

Eta Bihurne Ipurterrek ikaragarri gaizki hartu zuen bi familien hutsegitea.

–Bati bakarrik ahaztu izan bali-tzaio sikiera –esaten zuen bere kolko-rako–, beste bataiora joateko aukera izango nuen, edo alderantziz. Baina biei ahaztea... gehiegizkoa da! Jakingo dute nor naizen! Ederki jakin ere: luza-roan hartuko naute gogoan!

Bere suzko motorra hartu eta ziztu bizian abiatu zen.

Maitagarri gaiztoek egin ditzaketen gauzak ezinezkoak dira pertsona nor-

malentzat. Adibidez, gai dira bi ezkon-
tza edo bi bataiotan aldi berean dantza
egiteko. Haiek bakarrik dakite nola
egin, eta, logikoa denez, inori ez diote
kontatzen.

Edonola ere,
errege-erregina
bikote biek Bihurne
Ipurterre festako gonbidatuen artean
ikusi zutenean, ustekabe itzela hartu
zuten.

–Zin degizut izugarri sentitzen
dugula, heren-lehengusina maitea –esan
zion Patxin erregeak–, hutsegite handi
hau egin izana. Gertatu dena izan da
nahastu samar ibili garela jaioberriaren
inguruko guztiarekin. Baina asmo txar-
ririk gabe egin dugu.